

SARRERA

Jaladameko hezitzaileak zenbait urtez haur hezkuntzan, 0-6 etapan, lanean ibili ondoren, gaur egun hezkuntzan, haurren nortasuna, autoestimua eta emozioen kudeaketa lantzen saiatu arren, gai horretan hutsune bat dagoela konturatu gara. Guk, haur hezkuntzako etapako haurrei laguntza eskeiniko diegu, baina, baita ere beraien familia kideei.

Gelan gai hauei eskini behar zaion beharrezko denbora ez zaio eskeintzen, esate baterako, curriculum-ean agertzen diren eremuak bete behar direnez, hezitzaileek ez daukate denborarik gai hauek sakonago lantzeko eta bestetik, hezitzaileak ez daude emozioak kudeatzen irakasteko prestatuta, hau da, ez dakite haurrei erakusten beraien emozioak kontrolatzen eta azalerazen.

Beraz, haurrei eta beraien familiei, beraien emozioak ezagutzen, onartzen eta kudeatzen ikasteko espazio bat eskeini nahi diegu. Bertako profesionalak emozioak kudeatzen lagunduko diete, izan ere, beraien nortasuna eta autoestimua garatzen ari diren etapa kritikoan baitdaude.